



OÑATIKO MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLAN BEREZIA (PERCO) IZENENKO DOKUMENTUA EGUNERATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen arabera egiten den kontratuak xede hau izango du: oñatiko merkataritza biziberritzeke plan berezia (perco) izeneko dokumentua eguneratzeko zerbitzua ematea, baldintza teknikoaren pleguan, plegu honetan eta kontratuaren adjudikaziodun gertatzen den eskaintzan zehaztutako baldintzetan.

Adjudikaziorako jarraituko den prozedura negoziatua izango da.

2. EXEKUTATZEKO EPEA

Prestazioa emateko epea, guztira, LAU HILABETEKOA izango da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa, BEZ gabe, 30.000,00 eurokoa izango da, eta kopuru hori lizitatzailleek beherantz hobetu dezakete eskaintzetan.

Behin adjudikatu eta gero, ulertuko da prezioan sartuta daudela kontratua ematearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak.

4. FINANTZAKETA

Nahiko aurrekontu kreditu dago, kontratua betetzetik Udalarentzat sortzen diren obligazioei erantzuteko.

5. NOLA ORDAINDU

Kontratuaren prezioa ordainduko da dagokion faktura aurkezten denean eta kontratazio organoak onartzen duenean, eta honela:

- Kontratua sinatzean % 10
- Diagnostiko agiria aurkeztean..... % 30
- Bukaerako dokumentazio osoa paperean eta euskarri informatikoan entregatu eta Udaleko Zerbitzu teknikoek proiektua onartutakoan %60

Faktura onartu eta gero, Sektore Publikoko Kontratuaren Testu Bateratuko 216. artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratuaren iraupena kontutan hartuz ez da preziorik berraztertuko.

7. BERMEAK

Behin-behineko bermea:

Ez da eskatzen

Behin betiko bermea:

Kontratuaren adjudikaziodunak, hartutako obligazioak beteko direla bermatzeko, behartuta dago behin betiko bermea jartzera, adjudikazioaren zenbatekoaren % 5koa, BEZa sartu gabe.

Aipatutako bermea jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratuen 96.1 artikuluan ezarritako edozein bidez jarri ahal izango da.

Bermea itzuliko da, bai guztia edo, hala badagokio, zati bat, lehen aipatu den 3/2011 EDL 102. artikuluan xedatutakoaren arabera, bermearen epea bukatutakoan eta adjudikaziodunak kontratuaren obligazio guztiak bete dituenean.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA ERA

Kontratu hau prozedura negoziatu bidez adjudikatuko da, ekonomikoki eskaintza onuragarriaren alde.

Hona hemen prozedura negoziatua adjudikatzeko hartuko diren irizpideak:

1. Txosten teknikoa: 80 puntu. (B gutun-azalean sartzeko) eta bertan honako hau adierazi beharko da:

1.1.- Proposatutako dokumentuaren eskema garatzea: **20 puntu**

1.2.- Plegu-xedeko lanen garapena aurreikusten duen programa. Bertan sartuta egongo dira, gutxienez, garatu beharreko fase eta lan guztiak adieraziko dituen barra-diagrama bat eta haien denboralizazioa: **30 puntu**

Txosten Teknikoaz gain, beste informazio hau ere aurkeztu beharko da B gutun-azalean:

1.3.- Zerbitzua ematearen ardura izango duten langile teknikarien zerrenda; bertan jaso beharko da teknikari bakoitzak zein titulazio duen eta zein urtetan lortu zuen: **10 puntu**

1.4.- Enpresak egindako ekarpenak, ikerketarekin zerikusia dutenak eta Udalak interesgarritzat jotzen dituen heinean: **10 puntu**

1.5.- Enpresaren eskarmentua: Azken 3 urteetan 10.000-20.000 biztanle duten beste herri batzuetan Merkataritza arloa garatzeko ikerketak eginda izatea, bereziki PERCOak: **10 puntu**

2. Proiektu osoa idazteko eskainitako prezioa: 20 puntu. (C gutun-azalean sartzeko)Prezioan jaisten den 1.000 euro bakoitzeko, puntu 1 eskuratuko da. 10.000 euro baino gehiagoko jaitsiera izanez gero, eskaintza ez da aintzat hartuko "jaitsiera arriskutsua" kontzeptua aplikatuta.

9. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko ahalmen eta gaitasun juridiko osoaren jabe diren eta euren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duten pertsona fisiko zein juridikoez, baldin eta sartuta ez badaude Sektore Publikoaren Kontratuen Testu Bateratuen 60. artikulua xedatzen dituen debeku kasuetan. Kaudimena 10. klausulan ezarritako baliabideen arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Halaber, egin ahal izango dute eurek euren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez, hartarako emandako ahalordearen bidez. Pertsona juridiko baten izenean aurkeztuz gero, agiriz frogatu beharko du ahalmendurik dagoela hori egiteko. Batean zein bestean, kontratatzeke aipatu diren ezintasun kausek eragiten diote ordezkariari. Gainera, lizitatuzaileen helburua izango da kontratu honen xedearekin zuzenean harremana duten jarduerak egitea, eta kontratua gauzatzeko moduko antolakuntza izan beharko dute, behar besteko giza baliabide eta baliabide materialekin.

10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedienteak, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Oñatiko Udaleko Bulegoetan egongo da kontsultatzeko, bulego orduetan, lanegun guztietan,

Halaber, lizitazio hau Udaleko Kontratatzailearen Profilean iragarriko da eta bertan pleguak ere eskuratu ahal izango dira.

Proposamenak udaletxeko sarrera erregistroan aurkeztuko dira goizez, 9:00etatik 14:00etara bitartean, 2013ko martxoaren 11tik 27ra (hau barne).

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkeztutako proposamenak, nahiz eta jaso aurkeztu zituztela Postetxean epea amaitu baino lehen.

Lizitatuzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztu beharko dute itxita. Kartazal bakoitzean hau idatziko da: "OÑATIKO MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLAN BEREZIA (PERCO) IZENEKO DOKUMENTUA EGUNERATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak adieraziko dira, eta noren izenean sinatzen duen. Hiru kartazalok sinatuta egongo dira.

1) "A" kartazalaren azpiztitulua izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

1.a) Enpresariaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak eta, hala badagokio, haren ordezkariarenak.

Nortasuna egiaztatuko da hauek aurkeztuz:

- Nortasun Agiria, lizitatuzaileak bere izenean jardunez gero.
- Beste pertsona edo entitate baten ordezkari jardunez gero, Nortasun Agiria eta

ahalordetze-eskritura. Agiriak kalifikatzeko egintzan, ofizioz, ahalordea askietsiko da.

- Lizitatzaila pertsona juridikoa denean, eraketa eskritura edo aldaketa, hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik eta identifikazio fiskaleko kodea, aplikatu dakioken merkataritza legeriaren arabera erregistroan inskribatzea beharrezkoa badu. Hala izan ezean, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo fundazio aktaren bidez egingo du; horietan jardueraren arauak jasoko dira eta, hala badagokie, inskribaturik egon beharko dira dagokien erregistro ofizialean. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresari ez espainiarrak direnean, egiaztatu egin beharko dute inskribaturik daudela lanbide edo merkataritza erregistroren batean, dagokion Estatuko legeriak baldintza hori eskatzen badu .
- Hainbat enpresarik lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa batasuna eratuz, jarduteko gaitasuna eta kaudimena taldekide bakoitzak egiaztatu beharko du, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, adjudikaziodun irtenez gero aldi baterako enpresa batasuna eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute. Era berean, proposamenean adieraziko beharko dute aldi baterako enpresa batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

1.b) Berariazko adierazpen erantzulea, Sektore Publikoaren Kontratuen Testu Bateratuen 60. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.

1.c) Berariazko adierazpen erantzulea, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzakoak betetzen dituela agertzen duena

1.d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa kreditatzen du(t)en agiria edo agiriak. Era honetan edo hainbat eratan egiaztatu beharko ditu:

- Finantza erakundeen txostena edo, hala badagokio, lanbide arriskuengatik kalte-ordain aseguruia izanaren frogagiria.
- Pertsona juridikoen kasuan, Merkataritza erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuak aurkeztea, eta horiek aurkeztera beharturik egon ezean, kontabilitate liburuak behar bezala legeztaturik.
- Negozioen bolumen globalari buruzko adierazpena eta, hala badagokio, kontratuaren helburuari dagokion jarduera-eremuan duen negozio bolumenari buruzkoa, betiere azken hiru urtealdi erabilgarriari buruz.

1.e) Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren ziurtagiria. Agiri hauek aurkeztuz egiaztatu behar dute:

- Azken hiru urteotan egindako antzerako planak idazteko kontratuen zerrenda, eta adieraziko dituzte zenbatekoa, egunak eta xede publikoa edo pribatua izan duten, eta horiei buruzko ziurtagiriak gehituko dituzte.

1.f) Atzerriko enpresak badira, edozein ordenako Espainiako epaitegi edo auzitegi-tako jurisdikzioaren mende jarriko direla adieraztea, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lizitatzailari egokituko dakioken atzerriko jurisdikzioari uko egiten diotela ere bai.

1.g) Kontakturako telefonoa eta e-maila edo fax-a.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Sailkatutako Enpresen erregistro

ofizialean izena emanda dauden lizitatzailleek ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, 1.a), 1.b) eta 1.c) ataletan eskatzen diren agirien orde; ziurtagiria erregistroko letratu arduradunak egingo du.

* Eskatutako agiriak jatorrizkoak izango dira edo, bestela, Administrazioak edo Notarioek behar bezala konpultsatu edo kautotutako kopiak.

** Lizitatzailleak ez du "A" gutun-azaleko agiriak berriz aurkeztu beharrik izango, baldin eta Udal honetan adjudikazio-eguna baino sei hilabete lehenago izapidetutako beste kontratazio-espeditente baterako "A" gutun-azalean eskatutako agiriak aurkeztu baditu, betiere aldaketarik izan ez bada horietan eta/edo iraungita ez badaude, eta gorabehera hori adierazpen erantzule bidez jasoko da.

*** Adjudikaziodun ez diren lizitatzailleek **"A" gutun-azalean aurkeztutako agiriak itzultzeko** eskatu ahal izango dute, kontratua adjudikatu eta errekurtsioak jartzeko epea igarotakoan errekurtsorik jarri barik. Adjudikaziodunak ere hori eskatu ahal izango du kontratua exekutatu ostean eta behin betiko bermea itzulitakoan.

2) "B" gutun-azalaren izenburua izango da "TXOSTEN TEKNIKOA", eta agiri hauek izango ditu:

Adjudikatzeko, balio-irizpenen mendeko balorazioa izango duen dokumentazioa; honako hau, hain zuzen ere:

a) Txosten teknikoa eta lan programa, 8. klausulako 1. atalean ezarritako adjudikazio-irizpideak baloratu ahal izan daitezzen.

Kasu batean ere ez dira sartu behar gutun-azal honetan proposamen ekonomikoa edo era automatikoa zenbatu daitezkeen adjudikazio irizpideei dagokien beste edozein datu, ezta "C" gutun-azalean sartu behar diren datuak ere.

Datu horietako edozein sartuz gero "B" gutun-azalean, lizitatzaillea prozedura honetatik kanpo geldituko da, eta ez da irekiko "C" gutun-azala.

3) "C" gutun-azalaren izenburua izango da "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK", eta agiri hauek izango ditu:

a) Eredu honen arabera diru proposamena:

" Eskaintzailea

Izen-abizenak: -----

Helbidea: -----

Posta kodea: -----

Herria: -----

NAN zenbakia: -----

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa izanik, (aukeratu azpikoa)

Neure izenean

Jarraian datorrenaren ordezkartzan

Ordezkatuaren datuak:

Izena: -----

Helbidea: -----

Posta kodea: -----

Herria: -----

NAN/IFK zenbakia (pertsone fisiko edo juridikoa izatearen arabera): -----

OÑATIKO MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLAN BEREZIA (PERCO) IZENENKO DOKUMENTUA EGUNERATZEKO ZERBITZUA kontratatzeke, Oñatiko Udalak deitutako lizitazio negoziatuaren berri jakin dut, eta adierazten dut:

1) Konpromisoa hartzen dut aipatu lana euroan egiteko, gehi €,%ko BEZari dagozkion euroak, eta ezaugarri teknikoetan azaltzen den ezaugarrien arabera eta prezioan sartzen dira kontzeptu guztiak, barne harturik edozein zerga esferaren zergak, gastuak, tasak eta arielak, bai eta enpresariaren irabazi industrialak ere.

2) Baldintza teknikoen berri badut, haren eduki eta guzti, bai eta baita baldintza ekonomiko-administratiboen plegua eta gainerako agiriak ere, berariaz neure gain hartzen ditudanak eta dendenak hartzen ditut ontzat.

3) Ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditu ordezkatzen dudana enpresak.

4) Halaber, nire burua behartzen dut lan eta zerga arloan araututakoa betetzen.

(non), (noiz).....ren(e)an

Sinadura

* Eskaintzan agertu behar da, xehaturik, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, eta adieraziko da kontratuari aplikatu dakizkiokeen oinarria eta zenbatekoa, hura erregulatzen duen araudiaren arabera. Eskaintza xehaturik ez badago, kanpoan utziko dugu.

Kasu batean ere ez da sartu behar gutun-azal honetan txosten teknikoa, ezta adjudikatzeko orduan balio-irizpenen mendeko balorazioa izango duen beste edozein datu ere; horiek "B" gutun-azalean sartu behar dira.

Datu horietako edozein sartuz gero "C" gutun-azalean, ez dira baloratuko agiriok; hortaz, era automatikoki zenbatu daitezkeen adjudikazio-irizpideei dagozkien puntuak baino ez zaizkio batuko.

Eskatutako agiriak aurkeztu ahal izango dira jatorrizkoan edo kopian, behar bezala konpultsaturik edo kautoturik Administrazioak edo Notarioak.

11. ALDAERAK EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartuko.

12. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaia honela osatuko da:

LEHENDAKARIA:

· Oñatiko Udaleko alkate-lehendakaria edo berak eskuordetzen duena.

BOKALAK:

· Sozioekonomia batzordeko burua edo berak eskuordetzen duena.

· Kontuhartzailea edo berak eskuordetzen duena.

· Udaleko idazkaria edo berak eskuordetzen duena.

· Sozioekonomia batzordeko teknikaria/k

· Txandako ordezkari bat.

IDAZKARIA

· Udalbatzako edo berak eskuordetzen duena.

Etorri ahal izango dira mahai bilera horretara udaleko arduradun teknikari guztiak,

Mahaiak eskatzen duenean etortzeko, aholkularitza lanak egiteko, edo egoki iritzitako txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

13. AGIRIAK KALIFIKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, garaiz eta behar bezala jasotako agiriak ("A" gutun-azala) kalifikatuko ditu Mahaiak, eta horretarako, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako moduan jardungo du.

Hartarako, argibideak edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dituzte, lizitatzailen gaitasunari eta kaudimenari buruz, Erregelamenduaren 22. artikulua xedatzen duen bezala, eta horiek ekarri beharko dira bost egun naturaleko epean. Argibideen edo informazio osagarriaren eskaeraren berri emango die Mahaiak ahoz interesdunei, eta, era berean, kontratazio organoaren iragarki taulan jarriko du eskaera. Era berean, aurkeztu diren agiritan zuzendu daitezkeen akatsen berri emango du Mahaiak, hiru laneguneko epean lizitatzailerek konpondu edo zuzendu ditzaten antzemandako akatsak.

"B" gutun-azalak jendaurrean irekiko dira proposamenak aurkezteko epea amaitu eta laugarren egunean eguerdiko 12:30ean, postaz bidalitako kasuetan izan ezik. Kasu horietan, Estatuko Kontratazio-Erregelamendu Orokorrean zehaztutakoa beteko da.

Edozein arrazoirengatik "B" kartazalak irekitzea atzeratuko balitz, kontratazio profilean adieraziko da leku, egun eta ordu berria (<http://www.oinati.net>). Halaber, lizitatzailerei bidaliko zaie "A" kartazalean zehaztutako e-maila edo fax-era jakinarazpena.

Aurkeztutako **eskaintza ekonomikoak ("C" gutun-azala)** jende aurrean irekiko dira kontratazio profilean adierazitako leku, egun eta orduan (<http://www.oinati.net>). Halaber, lizitatzailerei bidaliko zaie "A" kartazalean zehaztutako e-maila edo fax-era jakinarazpena bidalita.

14. PARTEHARTZAILEEKIN NEGOZIATZEA

Gonbitean adierazitako epearen barruan jasotako eskaintzekin, ezarritako esleipen-irizpideak eta kontratuari lotutako beste edozein alderdi ekonomiko, tekniko edota logistiko negoziatzen hasiko da.

Eskaintzaileei korreo elektronikoz eta udalaren web orrian txertatutako iragarkiaren bidez, eskaintzarik onenari buruz berri emango zaie. Eskaintzaileek 7 egunetako epea izango dute aurkeztutako eskaintzako hobetzeko, hala nahi izanez gero. Epe horretan ez badute eskaintzarik aurkezten, uko egiten diotela ulertuko da.

Negoiazioa amaitzean, baldintzak aldatzeko konpromisoa hartu dutenek, azken eskaintza aurkeztu beharko dute, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena zein den balioetsi eta hautatzeko.

15. ADJUDIKATZEA, SINATZEA ETA GASTUAK

Kontratazio Mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratuen 320.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio organoari bidaliko dizkio aurkeztu diren proposamenak, aktarekin batera, eta adjudikazio proposamena.

Kontratazio Organoak, aukeran, ahalmena izango du kontratua proposamen onuragarriari adjudikatzeko edo prozedura ezerezean geratu dela adierazteko, baina kasu guztietan arrazoitu egin behar du hori.

Alkateak errekerimendua egingo dio eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileri, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hamar egun balioduneko epean, jardun hauek egin ditzan:

- a) Behin betiko bermea jarri eta, hala badagokio, berme osagarria.
- b) Zerga- obligazioak eta Gizarte Segurantzako obligazioak egunean dituela kreditatzen duten agiriak ekartzea..

Aurreko 10 eguneko epea bukatu eta hurrengo 5 egun baliodunetan egin beharko da adjudikazioa, betiere lizitatzailak aurkeztu badu adierazitako dokumentazioa eta jarri badu behin betiko bermea.

Adjudikazioa ez bada egiten eskaintza onuragarriena egin duen lizitatzailaren alde, hark ez dituelako bete hartarako beharrezkoak dituen baldintzak, beste deialdi bat egin baino lehen Administrazioak errekerimendu berri bat bidali diezaioke ondorengo lizitatzaileri, eskaintzak sailkaturik geratu diren ordenan, eta hala denean 10 egun baliodunen epea emango zaio hari, lehen adierazitakoa betetzeko.

Adjudikazioa gehienez bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratuen 155.2 artikulua arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, adjudikazioak lizitatzaileri eragindako gastuak konpentsatzeko Administrazioak zehaztuko ditu gastuok, lizitatzaileri entzunaldia eman eta gastuak justifikatu ondoren.

Kontratua hobetuko da administrazio agirian sinatuta, eta hori egin behar da adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hamabost egun baino beranduago ez.

Adjudikazio-hartzailearen erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Udalak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira. Lizitazioaren eta adjudikazioaren iragarkien gastuak Bergarako Udalaren kontura joango dira.

III. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

16. KONTRATUA BETETZEA

Kontratuaren arrisku eta gorabeheren erantzukizuna adjudikazio hartzailearena izango da

Kontratua beteko da agiri honetan jasota datozen klausulen arabera eta, hala badagokio, espedienteari batutako espezifikazio teknikoen arabera. Administrazioak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu, eta hark erabiliko ditu ahalmen horiek bai idatziz bai ahoz.

Kontratistari edo haren mende dauden pertsoneri egotzi dakizkien egintzengatik edo omisioengatik, arriskuan jartzen denean kontratua bide onetik joatea, Administrazioak exijitu egin ahal izango du beharrezko neurriak hartzeko, kontratua betetzean ordena ona lortu edo berrezartzeko.

17. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK

Kontratista, kontratu honetako obretan erabiltzen dituen langileei buruz, behartuta dago indarrean dauden legezko xedapenak betetzera, bai lan arloan, Gizarte Segurantzakoan eta laneko segurtasun eta higienekoan; eta hori bete ezean, Administrazioa erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

18. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK.

Kontratua betetzean egin beharreko operazioen ondorioz sortutako kalteen eta galeren erantzulea kontratista izango da, Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 EDL 214. artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. KONTRATUA ALDATZEA

Herri onurako arrazoiak direlako edo ustekabeko arrazoiak sortzen direnean, Udalak kontratua aldatzea izango du. Adjudikaziodunak ez du izango eskubiderik kalte-ordainik jasotzeko, Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 Legearen 308.c) artikuluan zehaztutakoari kalterik egin gabe.

20. ONARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuen Erregelamendu Orokorraren 203. artikuluan xedatutakoaren arabera entregatuko dira lanak, eta Udaleko Zerbitzu Teknikoek horiek aztertu ondoren proposatuko dute horiek onartzea edo, kontrakoa bada, idatziz emango dizkio kontratistari beharrezko jarraibideak, antzemandako akatsak zuzentzeko, eta horiek zuzentzeko epea agertuko da.

Kontratuaren xede den prestazioa bukatu eta 30 eguneko epean, kontratuaren onarpen ekintza formala eta positiboa egingo da, zerbitzuaren behin betiko txostena emanaz egingo da.

Era berean, berme-gisa, HIRU HILABETEKO epea ezarri da, harrera formala egiten

den egunetik hasita, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean jasota datozen ondorioetarako.

Berme-epe horretan kontratistaren kontura joango dira egindako lanetan eta prestazioetan ager daitezkeen huts edo akatsak, eta behartuta egongo da dagozkionak zuzentzen, ordaina izateko eskubiderik gabe.

Epea igarotzen bada Administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.

21. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUAREN EXEKUZIO EPEAK

Kontratista, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, berandu ibili bada kontratuaren exekuzio-epea betetzeari buruz, bai epe osoari dagokionez, bai, hala badagokio, epe partzialei dagokienez, Administrazioak aukeran izango du, edo kontratua amaitzea, bermea galduz, edo egun bakoitzeko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euroko proportzioan.

Berandu ibiltzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiplo batera iristen diren bakoitzean, Kontratazio Organoak ahalmena izango du kontratua bertan behera uzteko edo kontratuaren exekuzioarekin jarraitzea erabakitzeko, zigor berriak ezarriz.

B) EGIN BEHARREKO LANEN EXEKUZIO PARTZIALA

Kontratatista, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioen exekuzio partziala betetzen ez duenean, Administrazioak aukeran izango du, era berean, edo kontratua amaitzea, bermea galduz, edo egun bakoitzeko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,20 euroko proportzioan.

22. AZPIKONTRATATZEA

Sektore Publikoaren Kontratuen Testu Bateratuen 227. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskatutako baldintzak bete behar direnez, adjudikaziodunak beste batzuekin hitzartu ahal izango du kontratua zati batean egitea, gehienez ere adjudikazio prezioaren % 50era arte

23. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOIAK

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak dira Sektore Publikoaren Kontratuen 3/2011 EDL 223 eta 286. artikuluetan ezarritakoak.

24. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagozkio kontratua interpretatzeko eskubideak, kontratua betetzetik sortzen diren zalantzak argitzea, onura publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua bertan behera uztea eta haren ondorioak zehaztea, betiere Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legean eta haren Erregelamendu Orokorrean ezarritako baldintzak eta ondorioak kontutan izanik.

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA.

24. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza agiri honen arabera egindako kontratuak administrazio izaera izango du eta kontratuan bertan zehaztu ez den guztiari dagokionez, hauetan zehazten den guztira egongo da:

- Toki Jaurbideko Oinarrien 7/1985 Legea, apirilaren 2koa; 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koa, Toki Jaurbidean indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartu zuena.
- Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratua 3/2011, EDL, azaroaren 14koa.
- Administrazio Publikoaren Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartua.
- Eta besterik ezean, zuzenbide administratiboko bestelako arauak, eta halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Baldintza ekonomiko-administratiboen plegu honen eta baldintza teknikoaren pleguaren artean kontraesanik izanez gero, plegu honetan zehaztutakoa nagusituko da.

25. JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren esanetara egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Oñati, 2013ko martxoarenan.